



HITZAURRE GISA

Belen Uranga

Soziolinguistika Klusterra

Helbide elektronikoa: belen@soziolinguistika.org

TXILLARDEGiri eskaini nahi diogun omenaldi hau ez da lehena, eta ziur asko ez da azkena ere izango. Jadanik *Jakin* aldizkariak (1999), Udako Euskal Unibertsitateak (2000) eta Euskal Herriko Unibertsitateak Euskaltzaindiaren babesarekin (2005) argitaratu zituzten Txillardegi omentzeko zenbaki bereziak. Horrez gain, ohorezko aipamenak eta bere inguruko jardunaldiak ere antolatu dituzte hainbat erakundek. Soziolinguistika Klusterrak berak, 2008an antolaturiko I Soziolinguistika Jardunaldian bere omenaldia eskaini zion intelektual handiari.

Intelektual diogu, ez hitz soil horrek definitzen duelako hertz anitzeko gizona, ez. Intelektuala diogu, bere hitzetan ere, gainerako ertzei gailendu zaiona hori delako. Intelektual zentzu zabalenean, zientziaren abiapuntutik, humanistikarako bidean maisu handia baita, garaiko pentsamendu-lerro gehienak ezagutzen dituelako: filosofia, hizkuntzalaritza, literatura eta baita soziologia-arloa ere. Eta baita euskal gizartean eragin zuzena izan duelako ere!

Ez da hau Txillardegiren ekarpenaz berrikuste zehatza egiteko unea, baina omenezko zenbaki honen aurkezpenean, akaso, hainbat denbora tarte bereiz daitekeela esaterik bada, non eta ertz horietako bat nagusitzen den gainontzekoak erabat baztertu gabe, jakina. Izan ere, hori izan da bere ezaugarrietako bat, askotariko horiek guztiak uztartzea, alegia.

Nolanahi ere, lehen denbora tartean (1948 – 1960), euskalduntzen ari zela, nagusitzen den aldea militantearena, pentsalariarena eta berritzailearena da. Baina ezin ahantz tarte horretan sortu zuela euskal literaturan zirrara berezia sortu zuen obra¹. Ondoren (1961 – 1969), euskara batuaren sustatzaile sutsua bilakatu zen Txillardegi eta Euskaltzaindian eragiteko

ahalegin handiak egin zituen helburu horrekin. 1960 eta 1979 urte bitartean, hizkuntzalari gisa nabarmendu zen, bai gramatika arloan eta, zer esanik ez, fonologia-arloko lanetan. 70. hamarkadaren amaiera aldera hasi zen unibertsitateko irakasle-lanetan, eta azpimarratu behar da 90. hamarkadaren amaiera arte eginiko irakasle eta ikertzaile lan handia. Orduan garatu zituen soziolinguistika eta hizkuntzaren estatusaren inguruko garrantzi handiko lanak. Harrez geroztik, bere idazlanek etenik ez dute izan; ibilbide hori guztia ekimen politiko eta euskaltzalez jantzia.

Hari horretatik tiratuz ekar ditzagun bere hitz batzuk: “Nik ez dut politikarako balio. Politikan jarraitzaileak izateko, agintzen jakin behar da; eta harrokeria puntu bat ere ez da txarra”². Horren aurrean, ezin hobeto laburbiltzen ditu Joxe Azurmendik euskaldun askoren erantzunak: “Beti esan dut, Txillardegik ez dela politikaria, baina Euskal Herriko politikak gaur inor gutxiri zor diola gehiago berari baino. Zergatik? Orokorki esateko, Euskal Herriaren ideia berri bat eskertu behar diogu, nik uste. Kontzientzia kultural, politiko, sozial global bat, gero dinamika berri batean bere espresioa izan duena praxi politikoan eta kulturean ere, euskal gizartean, batzuetan Txillardegirekin, beste batzuetan Txillardegiren aurka ere bai”³.

Bere ibilbide literarioari buruz antzeko bidetik iritzi dio Txillardegik: “Nik uste dut literatura beti gauza marjinal gisa hartu dudala neure egitekoen artean”⁴. Zer litzateke euskal literatura lursail marjinaletik gune zentralera ekarri izan balu! BAT Aldizkariako zenbaki honetan ez dugu bere ekarpen literarioaz sakontzeko betarik izan, baina altxor txiki bat badakargu, **Paulo Agirrebaltzategik** *Leturiaren Egunkari Ezkutuak* Bitoriano Gandiagarengan izan zuen eragina aztertuz idatzi duen artikuluaekin; Gandiaga, bera, “zinez identifikatuta sentitu zen Leturiaren bizigura eta “zorian-min” bete ezinarekin”. Bihoa artikulua honekin BAT Aldizkariaren aitortza Txillardegiren ekarpen literarioari.

Baina zenbaki honetan, Txillardegiren soziolinguistika arloko eragina omendu nahi izan dugu bereziki. Gai horren inguruan idatzi dute **Maria-Jose Azurmendik**, **Xabier Isasik**, eta **Imanol Esnaolak**.

Maria-Jose Azurmendik Txillardegiren eredu matematikoak sorturiko hainbat gogoeta ekartzen ditu idatzira: euskararen erabilera neurtzeko, eta elebitasun instituzionala eta soziala sinkronikoki eta diakronikoki aztertzeko irizpideak proposatu ditu. Baina ezer baino gehiago Txillardegiri aitortza egin dio ibilbide luzean elkar topo egin baitute euskararen hainbat eremutan, irakasle zein ikerle modura. Bereziki BAT Aldizkariaren bilakaeran izandako eraginagatik, sortzeko izandako indarragatik eta zuzendaritza-lanetan lekukoa emateagatik egindako aitortza da.

Xabier Isasik, ildo beretik, “behar bezalako arrakasta izan ez duen Txillardegiren soziolinguistika matematikoaren ekarpena”ren inguruan mamitu du bere artikulua, kontzeptu eta ekarpen nagusienak berriro gogora ekarriz: “hizkuntzen arteko ukipen egoeraren inguruko zehazta-

sunak, hizkuntza gutxituaren erabilera-mugak, edota haren probabilitate-maila funtzio matematikoaren bitartez azalduta". "Bateraezintasuna", "isotropia" eta "anisotropia" kontzeptuak ere azaltzen ditu "soziolinguistika matematiko aplikatua" birplanteatzeko.

Imanol Esnaolak Txillardegiren alderdi intelektual "deserosoa" azpimarratu nahi izan du omenaldi honetara bildutako artikuluan. Deserosoa, bere ekarpenaren unibertso kontzeptuala ez baita leuna, gatazkatsua baizik; ekarpen gordina goi mailako izaera akademikoarekin jantzia eta eragiteko konpromisoari lotuta. Ezagutza eta garapen intelektualaren bitartez "Txillardegik asto eta guzti aurrera egiteko bidea erakutsi du, lastoa eta bihia bereizten irakatsiz". Txillardegiri zor zaion aitortzaren beharrarekin amaitzen du artikulua egileak.

Pilartxo Etxeberriak Txillardegiren euskal fonologia, prosodia eta ahoskera batuaren inguruko ekarpenak bildu ditu "Euskal Herria eta Euskara" artikuluan. "Hizkuntza eta pentsakera" (1966) artikulua ezaguna gogoratu, XX. mendeko hizkuntzalaritzaren ildotik, estrukturalismoetik eta generatibismoetik eginiko Txillardegiren lanak aztertzen ditu, eta Ahoskera Baturako egindako proposamen aipagarrienak gogoratzen. Azkenik, ondorengo lanek (*Euskal fonologia*, 1980; "Euskalkien Fonetika eta Euskara Batua", 1981; eta *Euskal azentuaz*, 1984) euskal hizkuntzalaritzan izan duten mugarri izaera azpimarratu du.

Nazionalismo zibiko eta etniko deituriko biko banaketa tradizionaletik haratago **Jacqueline Urla** antropologoak erakutsi nahi du Txillardegirentzat hirugarren bide bat badela, pragmatikoa, eta hor, nazioko kide edo partaide izateko irizpideak ez datozela jaiotzatik (nazionalismo etnikoa) ez sinesmen soiletik (zibikoa), "baizik eta euskara hitz egitetik" planteatu. Jacqueline Urlak Txillardegiren ikuspuntu pragmatikoa berrikuntza teorikotzat hartzea proposatzen du eta ez "slogan politiko" soiltzat.

"Txilar sorta bat" izenburupean idatzi du **Joxe Manuel Odriozolak** Txillardegiri eginiko omenezko artikulua. Izan ere, bere hitzetan: "...oso gutxi izan dira gure artean euskal herriaren alderdi etnolinguistikoa, etnokulturala eta etnonazionala hain modu orekatuan garatu dutenak." Aitortza horrez haratago, soziolinguistikaren larrean egindako ekarpenaz eta, bereziki, lan pedagogikoa ekarri du artikulura: "inork baino hobeto erakutsi izan du Europako hainbat herrialdeetako eredu bilakera, hor kokatzeko euskararen etorkizunean kontuan hartu beharrekoak...". Ezagutzaren bidetik geure bidea aukeratu beharra erakutsi du.

Zenbaki honetako bigarren atala Txillardegiren lanari zuzenean loturik egon ez arren, berari eskainitako zazpi artikuluko sortak osatzen du. Lehenengoan, "Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian" izenburupekoan, **Erramun Baxok** Ipar Euskal Herriko euskararen indargune itxaronpentsuak azpimarratu nahi izan ditu; "transmisioa hobetuz doa guraso gazteekin, lehen aldiz adin tarte gazteena zaharragoa baino euskalduna-

goa da, euskararen ikaskuntza gorantz doa...". Egoera gogorrean esperantzarako ateak zabalik.

Ainhoa Beolak, ondoren, Txillardegiren donostiar izaera abiapuntuztat hartu du, eta euskararen inguruko Donostiako datuak eman ondoren (euskararen ezagutzaren eta ikastetxeetako matrikulazio-datuak, besteak beste), Donostiako Udalaren Euskararen Ekimen Estrategikoak lortzeko Plan Orokorraren helburuak eta ekimen estrategikoak azaltzen ditu.

Atal honetako hirugarren artikuluan **Feli Etxeberriak** "Gazte unibertsitarioen bizipenak hizkuntza ikaskuntzan" ikerketaren berri eman du, hau da, hizkuntzak ikasteko prozesuen bizipena; kontuan hartu diren dimentsioak ikerketa horretan, norberaren etxean hitz egiten diren hizkuntzak eta eskolako hizkuntza-eredua izan dira.

"Hiztunen generoaren eta adinaren pertzepzioaz" idatzi du **Iñaki Gamindek** bere lanean, hiztunen generoaren eta adinaren ezagutzan erabiltzen diren korrelato akustikoen azterketa eginez. Horretarako, pertzepzio-eremuan egindako esperimentu baten emaitzetan oinarritu da bereziki. Oinarria hori izanagatik ere, beste zenbait azterketa akustikoren emaitzeekin ere hornitu du analisia. Aurkezten den lana prosodiaren esparrukoa bada ere, azterketa akustikoa eta pertzepzioa aldagai sozialekin batu ditu.

Xabier Elortza, Alex Mungia, Nekane Goikoetxea, Iñaki Pikabea izan dira "Euskararen transmisioa familia bidez indartzeko tailer pilotua Buruntzaldean" artikulua egileak. Artikuluak aurkezten duen egitasmo honek, besteak beste, gurasoek hizkuntza-transmisioari buruz dituzten uste, sinesmen eta portaeren arteko koherentzia lortzea du helburu. Argi dago guraso diren gehienek bat egiten dutela euskararen berreskurapen nahiarekin. Gainera, beren seme-alabak eleanitzak izatea nahi dutela jakina da. Baina hori lortzeko ez dituztela askotan portaerak helburuekiko lerratzen agerian jarri da.

Artikulu-sorta amaitzeko, **Pello Jauregik** eta **Pablo Suberbiolak** "Hizkuntza-aldaketa bikoteen harremanetan: ikuspegi teorikoa eta ikerketaren ondorioak" aurkeztu dute. Hizkuntza-ohituraren fenomenoak, eta ohitura horien aldaketak ikertzeko oinarri teoriko bat deskribatzen da lehenik, eta, ondoren, oinarri hori erabiliz eginiko ikerketa baten ondorioak laburtzen dira, *Bikoteen artean hizkuntza-ohituren aldaketa* ikerketalanaren ondorioak, hain zuzen.

Zenbaki hau hainbat omenezko gutun laburrekin osatu dugu. Hor dira esker oneko **Maria-Jose Azurmendik, Xabier Isasik, Erramun Baxo-kek** eta **Feli Etxeberriak, Iñaki Pikabeak** eta **Beronika Azpillagak** idatziriko gutunak; denak ibilbide luzean elkar lanean sorturiko elkarkidetzak eskergaren adierazle.

Horra, bada, Txillardegiri eskaini diogun ale bereziaren nondik norra-koak. Gure lantxo hau baliagarri izan dadila bere ekarpenak berriro irakurri, aztertu eta behar bezala balioetsiak izateko, hori bailitzateke merezimendu osoko omenaldia.■



OHARRAK

1. Ikus zenbaki honetan "Ohar biografiko - bilbiografikoa"
2. Joxean Agirre (1996). *Hitza hitz Txillardegirekin solasean*, 99 or.
3. Joxe Azurmendi (1999): "Txillardegiren saioa: hastapenen bila" *Jakin* 119, 18-19 or.
4. Joxean Agirre (1996). *Hitza hitz Txillardegirekin solasean*, 127 or.